

Baimenik gabeko publizitate hesiei gerra

Udalak baimenik gabeko 314 publizitate hesi kenduko ditu hiri osoan, Marja Jose Usandizaga Hiri Disziplina zinegotziak jakinarazi duenez. Usandizagaren esanetan, hesiok ez dute udal araudia betetzen eta ikus kutsadura sortzen dute. Hori dela eta, jabeei hilabeteke epea emango zaie hesiak kentzeko, eta hala egin ezean,

Udalaren agindupeko enpresa batek egingo du lana.

Udal araudiaren arabera, mota honetako publizitateak eraikitze edo berritze lanetan eta hesitutako inguruetan besterik ezin dira jarri. Teknikariak diotenez, Donostian araua betetzen ez duten 314 hesi daude, haietako 183 udal lurzoruan. Dena dela, Hiri

Disziplina zinegotziak adierazi du egungo araudia "oso zorrotza" dela eta beraz, ez du baztertu aurrerantzean aldatzea.

Maria Jose Usandizagak dioenez, kontrolik gabeko hesi hauek "eragin txarra dute hiriaren estetikan eta ikus kutsadura sortzen dute". Horrez gain, gidarientzat ere batzuetan traba direla gehitu du.



Babes ofizialeko etxebizitzekin bueltaka

J oan den astelehenean, hilak 19, Javier Madrazo EAEko Etxebizitza sailburuak eta Odon Elorza alkateak hitzarmena sinatu zuten, Donostian, datozen sei urteetan, babes ofizialeko 5.400 etxebizitza egiteko. Hitzarmenaren arabera, etxebizitza 1.750 alokairuan eskainiko dira. Bestalde, bi aldeek adostutakoaren arabera, "epe ertainera", hau da hiruzpalau urte barru, 913 etxebizitza eraikiko dira: 500 Auditza Akularren, 250 Morlansen eta 163 Loiolako ibaiertzean.

Bai Etxebizitza Sailak bai Udalak ontzat jo dute hitzarmena eta babestutako etxebizitzak egitea lehentasuna izango dutela adierazi dute. Bi aldeek diotenez, merkatu librean etxebizitzak oso garesti daude eta beraz, administrazio publikoek bide guztiak erabili behar dituzte, baliabide urriak dituzten fami-

liei etxebizitza izan dezaten. Hitzarmenaren arabera, Udalak lurzorua jarriko du Eusko Jaularitzaren esku, babestutako etxebizitzak egin ditzan.

EA-EAJren kritika

EA-EAJk, ordea, kritika egin dio Elorzari, asteleheneko hitzarmena dela eta. Izan ere, Enrique Arana EA-EAJko zinegotziaren esanetan, astelehenean adostutakoak bi aldeek duela urte erdi sinatutako hitzarmenak jasotakoa baino hogeitaxi etxebizitza gehiago egitea aurreikusit du. Gehikuntza "hogeitaxi etxebizitza besterik ez direnez", Aranak adierazi du aho zabalik jaso zuela hitzarmenaren albistea.

Bestalde, Aranaren esanetan, Elorzak aipatutako etxebizitza sustapen gehienak "datozen urteetan etorriko diren udalbatzarrei dagozkie". Beraz, "kea saltzea" leporatu dio alkateari.

Hitz eta pitz

Erasoen aurka, eguneroko lana

Xabier Mendi-guren Kontseiluko idazkari nagusiari elkarrizketa egin diote hilaren 20ko Gara egunkarian. Euskararen aurkako erasoez eta eman beharreko erantzunaz



galdu dute Mendigureni.

Kontseiluko idazkari nagusiak dioenez, erasoen bitartez, euskararen normalizazioak duen babesa murriztu nahi dute. "Horren aurrean, egunero egiten dugun lanarekin jarraitzeko asmoa dugu, hori baita azken batean gure arrakastaren gakoa", adierazi du Mendigurenek. Ildo honetatik, Kontseiluak hizkuntza normalizazioaren aldeko plana garatuko duela dio, komunikabideetan eta nazioartean, besteak beste.